

Oposiciones docentes 2022 / 2022 Irakasle oposizioak		
Cuerpo / Kidegoa:	Especialidad / Espezialitatea:	Idioma / Hizkuntza:
Maistrak/ Maisuak	Lehen Hezkuntza	EUSKARA

1.A FROGA_KASU PRAKTIKOA

TESTUINGURUA

- Landa eremuan kokatua dagoen Haur eta Lehen hezkuntzako D ereduko ikastetxe batean zaude. **5. eta 6.mailako tutorea** zara eta 13 ikasle dituzu gelan, 9 mutil eta 4 neska.
- Ikastetxean ikasleen %70 mutilak dira eta %30 neskak
- Ikastetxeak patio handia du: berdegune handi bat eta zementozko gunea.

EGOERA

- Euskara maila ikastetxean nahiko kezkarria da eta ikasleek ez dute patioan euskaraz hitz egiteko ohiturarik.
- Azken aldian bizikidetza arazoak areagotu dira: jolas bortitzak eta irainak normalizatu dira eta ikasleen arteko liskarrak eta errespetu faltak ohikoak dira.
- 2 irakasle egon ohi dira jolastokian.
- Bigarren hiruhilekoa da.

EGINKIZUNAK

Zuzendaritza taldeak **zure 5. eta 6. mailako taldearekin batera** patioan esku hartzeko, **denontzat** izanen den **proiektu proposamena egitea** eskatu dizu. Garatu zure proposamena.